

José Saramagoren

Lisboako Setioaren Historia

liburuaren aurkezpena

JON ALONSO

Itzultzailearen aurkezpena

En primer lugar, quiero expresar mi enorme agradecimiento por el hecho de que un escritor de la talla de José Saramago haya tenido la consideración de, buscando un hueco en su apretadísima agenda, venir a Bilbao a pasar una hora entre nosotros, y de esta manera, honrar con su presencia la presentación de la primera traducción de una obra suya al euskara. Creo sinceramente que hay ocasiones en las que lo que uno da y lo que otro recibe pueden estar más o menos en equilibrio. Este es uno de los casos en los que se nos ha hecho un regalo —y hablo de la cultura vasca en general, si es que se me permite que me arrogue por estos breves instantes su representación— que quizás ni nos merecemos. Por tanto, Sr. Saramago, gracias de todo corazón por participar en este acto.

A continuación tendría que hablar de las novelas del Sr. Saramago y de esta *Historia do Cerco de Lisboa* —*Lisboako Setioaren His-*

toria— que es la novela que, en concreto, nos ha reunido aquí. Afortunadamente, nada de lo que yo pueda decir va a hacer variar lo más mínimo la consideración mundial de su obra, por lo que puedo salir del paso con mucha brevedad. A mí las novelas del Sr. Saramago, y hablo como simple lector, me producen una fascinación que casi supera completamente mi capacidad crítica; así las cosas, me limitaré a remarcar un aspecto de sus novelas en el que quizás no se ha hecho demasiado hincapié; me refiero al hecho de que las novelas del Sr. Saramago constituyen, para mí, una sola novela en la que poco a poco, con una tenacidad y un trabajo absolutamente admirables, ha ido desgranando los aspectos más importantes de la especie humana, la que habita este planeta que llamamos tierra, hasta dejar sobre la mesa un mosaico en el que todos los que aquí estamos nos podemos reconocer, y sobre el que más nos valdría a todos —no me refiero a todos los vascos ni a todos los europeos, sino

a toda la especie humana— reflexionar con la seriedad que merece.

Tras este breve comentario que pretende remarcar sobre todo la coherencia de sus novelas, no tengo más remedio que decir unas palabras sobre lo que supone, a mi juicio, el hecho de que hoy sea el día en que disponemos de un texto de José Saramago en el idioma vasco; evidentemente, no voy a juzgar mi propio trabajo del que solo puedo decir que ha sido entusiasta, respetuoso y responsable hasta donde he sido capaz de ello. Pero sí voy a decir que creo que trabajos así —que están dentro de un contexto, en el que están implicadas muchas personas, fundamentalmente traductores y correctores— deben servir, entre otras cosas, como antídoto ante aquellos que, desde fuera del idioma vasco pero desde dentro de nuestra sociedad, nos denigran sistemáticamente sin más argumentos que sus propios prejuicios, sus propias fobias y su propia intolerancia; y que deben servir, igualmente, para que quienes desde dentro del idioma vasco y, evidentemente, de nuestra sociedad, fomentan ortodoxias no siempre justificadas y actitudes autistas se den cuenta de cuál es el contexto cultural y social en el que, nos guste más o menos, nos hallamos inmersos.


Por último, dos palabras para finalizar acerca de lo que ha supuesto para mí, y hablo a nivel personal, la traducción al euskara de *Historia do cerco de Lisboa*; para mí ha sido un reto diario que, sin excluir momentos de desánimo, me ha mantenido vivo como sólo lo pueden hacer las grandes aventuras. Y, por terminar este apunte personal de un modo algo humorístico, si es que ustedes me lo permiten, les contaré una anécdota que viene a dar la mejor medida de cuál ha sido la

naturaleza de mi trabajo. En cierta ocasión, hablando con otras compañeras y compañeros de oficio, hablamos sobre qué actitudes desarrollaba cada uno de nosotros cuando, ante el ordenador, nos encontrábamos con textos de tanta belleza y tanta enjundia que nos atemorizaba el mero hecho de poner las manos en el teclado; curiosamente, casi todas eran mujeres, y todos trabajábamos en nuestras propias casas. La mayoría se inclinaba por levantarse, reflexionar, y ya de paso, iba a la cocina y fregaba los cacharros de la cena de la noche anterior, o barría el comedor, o limpiaba los cristales. Yo, por mi parte, no solo me sentía identificado con esta manera de proceder, sino que, por mi parte, les confieso públicamente que nunca he llevado tan bien planchadas las camisas como durante el tiempo en que me ocupe en traducir *Historia do cerco de Lisboa*.

* * *

Ni neu ere, zuek bezala, José Saramagoren hitzak entzuteko etorri naiz hona, hala-beharrak hau bezalako toki nabarmenean eta seguru asko ez oso merezian jarri nauen arren; beraz, labor mintzatuko naiz, lau ideia adierazteko asmoz:

Lehenbiziko gauza da José Saramagori diodan esker ona publikoki azaltzea; gaur Bilbon gertatu dena —edo gertatzen ari dena— literaturaren mundu zail eta askotan azpiko-koz eta trabaz beterikoan gutxitan ikusten dena da: mundu zabalean ospea, izena eta entzutea irabazi duen idazle handi bat milaka irakurle gutxi batzuk baizik ez dituen hizkuntza apal bati babesa eman nahi izatea. Horregatik, luze hitz egin beharko nuke nire esker onaren lekukotasuna eman nahiko banu, eta luze hitz eginik ere ez nuke eske-




rion horren neurria ematea lortuko. Horregatik, luze hitz eginik ezin, eta labur, baina bihotzez, bilduko dut nire une honetako sentimendua: eskerrik anitz, eskerrik asko, José Saramago, itzulpen honen aurkezpenean parte hartu nahi izan duzulako.

Bigarren kontua José Saramagoren obraz hitz pare bat esatea izango litzateke; José Saramagoren obra oso luzea da, genero askotako lanak biltzen ditu eta, agian datua hain ezaguna ez den arren, itzulpen-lanak ere, eta ez gutxi, hartzen ditu bere baitan. Horregatik, batzuetan, errazenera joaz, bere obra guztiari buruz ez eta bere nobelei buruz mintzatzen gara, nobelak baitira famarik handiena eman dioten lanak. Dena esanda dago bere obrari eta bere nobelei buruz, eta nik ezer gutxi gaineratuko dut; gehienez ere, bi gauza: bata, hobe dela Saramagoren obretako bat irakurri hari buruz esaten dena irakurri edo entzun baino, eta biga, nik, nire aldetik, ezaugarri bat nabarmenduko nukeela Saramagoren nobelagintzan; ezaugarri hori osotasuna da, edo, nahiago bada, koherentzia. Azken hogeita bi urtetan Saramagok idatzi dituen 9 nobelek –eta etorriko direnek– unibertso bakar bat islatzen dute, eta bertan gizakion espeziea dago erretraturik, gure espezieak dituen alderdi on baina baita ikaragarri guztiekin ere. Benetan uste dut jendeak nobela horietan azalerazten den panoramari buruz hausnarketa egingo balu, sakon eta luze, egileak berak egiten duen bezala, zerbait aldatuko litzatekeela mundua ulertzeko gure ikuspegian.

Hirugarren gauza euskal bertsiotz hitz egitea da. Aldez aurretik aitortu behar dut lotsa pixka bat ere badudala gaur egokitu zaidan eginbehar hau dela kausa. José Saramagoren *Lisboako Setioaren Historia* euska-

raz edukitzea ez da apetak edo kapritxoak agindurik egin den zerbait; aitzitik, testuinguru baten barruan dago; testuinguru hori da hainbat itzultzaile eta zuzentzaile egiten ari diren ahalegina, gure lehen maisu zahararren –Bernart Etxepareren– agindua betetz, euskara eta bizitza, euskara eta mundua, euskara eta plaza uztartzeko. Nik nahiko nuke gaur lankide guztiek senti dezatela euren burua ordezkaturik, eta uler dezatela beraiek ere, nire bidez baizik ez bada, badaudela, bere nahia hori baldin bada, bederen.

Laugarren gauza huskeria bat da, edo anekdota bat, nahiago baduzue, agian nahikoa serio aurkituko dituzuen hitz hauetan umore pixka bat sartzeko eta, bide batez, nire hitzei bukaera emateko; anekdota da behin ari nintzela beste hainbat itzultzaileekin hizketan, eta mintzatzen ari ginen gure keria eta maniei buruz; zehatzago esanda, elkarri konstatzen ari ginen zer egiten zuen bakoitzak testu aberats, jori, eder eta estilo handiko batek mahai gainean jartzen dituen zailtasunak gainditzeko, hau da, zer keinu, zer jokabide hartzen zuen bakoitzak, zeri ekiten zion; izango da, noski, mendian ibiltzera joango dena, edo kalera aterako dena; hizketan ari ginen talde hartan gehienak, edo denak, neska zirela uste dut; denek etxean egiten genuen lan; hortaz, han ikusi zen joera nagusia haxe zela; ordenadore aurretik altxa eta etxeko lanetan hastea: dela harrikoa egitea, dela eskobatzeta, dela labadora martxan jartzea... Berehala ikusi nuen neure burua haiek esaten zuten hartan, nik neuk ere horretarako joera baitaukat; izan ere, aitortuko dizuet *Lisboako Setioaren Historia* euskaratzen ibili naizen bitartean, nire alkanedorak sekula baino hobeki lisatuak egon direla.



Kazetarien galderak idazleari eta itzultzaileari

Galdera: *¿Con qué dificultades hubo de enfrentarse en la traducción?*

Jon Alonso: En principio, me parece que traducir un texto de José Saramago al euskara plantea las dificultades que plantea cualquier obra literaria del nivel de la que hace José Saramago. No tiene unas dificultades específicas. En todo caso, debido a que su estilo es tan particular, tan característico, se pueden plantear dificultades de tipo lingüístico.

José Saramago: Me gustaría añadir algo. La verdad es que en principio puede parecer un poco sorprendente que para una traducción al euskara se haya elegido la *Historia del cerco de Lisboa*. Cuando se habla de mis novelas siempre se recurre a ... *convento*, *La muerte de Ricardo Reis*, *El evangelio según Jesucristo...*, *Ensayo sobre la ceguera* en los últimos tiempos.. No quiero decir aquí que todas mis novelas son buenas, o que todas son igualmente buenas, pero me parece muy bien que no os hayais quedado en algo que se convirtió casi en tópico. Cada vez que se plantea «qué es lo que vamos a hacer con José Saramago?», se habla de ...*convento*, *La muerte de Ricardo Reis*, *El evangelio según Jesucristo...* Me parece muy bien, porque tengo que decir que la *Historia del cerco de Lisboa* es una novela que no tuvo mucha fortuna; es cierto que no es fácil, es una novela un poco complicada, pero incluso en Portugal ha sido una novela cuya primera edición (las primeras ediciones de mis novelas en mi país son de 40.000 o 50.000 ejemplares) al cabo de tres años todavía no estaba agotada, mientras que en otras, al cabo de tres meses, un mes, y a

veces menos, la primera edición ya estaba agotada. No sé qué ha pasado con esta pobre novela... parece que no estaba destinada a una muy buena fortuna. Personalmente, quiero decir que en esta novela están algunas de las mejores páginas —desde un punto de vista del autor— que yo pienso haber escrito.

Sobre la traducción, hay algo que me gustaría decir aquí. Todos conocemos la expresión que inventaron los italianos, «traduttore, traditore», y la verdad es que no se puede pasar una obra literaria de una lengua a otra sin dejar algo de fuera y, por supuesto, sin añadir algo de dentro. Claro... es que no se puede. Y mucho más en un caso como este en que se está traduciendo de un idioma a otro tan distinto, y con motivos, y formas de ser, y mentalidad etc. tan características, tan fuertes, que tienen que ser plasmadas en un idioma que no tiene ninguna similitud.

Pero algo más me gustaría decir: los traductores se dividen por lo menos en dos categorías: los que nunca tienen dudas y los que tienen todas las dudas del mundo. Los que tienen dudas no dan trabajo, claro, lo hacen y después lo sabremos —cuando podemos, claro, porque si se está traduciendo al coreano o al hebreo, está clarísimo que el autor no tiene ninguna posibilidad de seguir si su libro está bien traducido o no—. Lo mismo pasa con el euskara. No tengo ninguna posibilidad de saber si la traducción es buena o no; pero, por otra parte, sí la tengo, porque mi traductor vasco es un traductor con dudas, y los traductores que tienen dudas dan muchísimo trabajo, como mi traductor inglés, mi traductora francesa, mi traductora italiana... son personas que tienen siem-


pre dudas, y envían listas de preguntas, de dudas, de problemas de interpretación y todo eso. Jon Alonso pertenece a esta categoría.

Pero lo que yo quería decir es que, de alguna forma, la lectura y la traducción que ha hecho de la *Historia del cerco de Lisboa* obligó a revisar la propia traducción castellana, por la minucia, el rigor, la atención con la que ha trabajado —y quiero decirlo en público, porque estas cosas cuando ocurren tienen que ser conocidas—. No he visto nunca salir de las manos de mi traductor un trabajo así (porque es un trabajo, que es la lista de sus dudas, sus preguntas, sus interpretaciones). Y la verdad es que si la traducción final que está en este libro corresponde a la calidad del trabajo anterior, entonces yo digo que teneis una traducción en euskara magnífica y que sólo puede ser

magnífica. Este es uno de los casos rarísimos en que yo puedo decir esta traducción es buena aunque yo no entienda una palabra. Sé que es buena.

Galdera: Beste hizkuntzetako itzulpenak erabili dituzu jatorrizkoaz gainera? Nola burutu duzu?

Jon Alonso: Hiru testu erabili nituen: jatorrizko testua, portugesez, gaztelaniatzko bi itzulpenak, eta horrez gain, nik ere publikoki esango dut, Pilar del Ríoren laguntza, Saramagoren azken bi nobelen itzultzailearena. Bai Pilarrek eta bai José Saramagok ere, pazientzia handiz eta estimu handiz hartu ninduten eta horregatik eskertzen dut. Hiru iturri horiek erabilita, nik uste dut ulermena ona dela. Nola atera den euskaraz, hori irakurleak esan beharko du.



FISIKAZ ETA EKOLOGIAZ

Bitxia bada ere, artikulu hau Pedro Miguel Etxenike aipatuz hasi nahi dut. Nik miresten dut Pedro Miguel. Susmatzen dut ez nintzela gauza askotan sekula berarekin konforme egongo, baina, aldi berean, uste dut oso tipo bizkorra dela. Gutxi bezala bizkorra. Herri honetan areago. Hutsak egin eta egingo ditu, baina zenbait gauzatan betebetea asmatu eta asmatuko du. Zientzia ez dago mundutik eta ideologiatik kanpo, noski, baina, aukeran, nahiago izabar euskaldun bat elektroien zirkulazioa zaintzen ezen ez Kaliforniako txiklejale bat. Nire probintzian agintaritzaren itxura eta ordezkariak egiten duen joteroak –hau ere herrikide, nonbait–, aldeanismo nazionalista iritziko dio ene aburu honi, baina nago unibertsalagoa dela Pedro Miguelen jarduna Korellako O.H.O.ko maisuaren ergelkeriak baino. Hala dirudi, ezta?

Lehengoa irakurri nuen Etxenikeri egiten zioten elkarrizketa bat, Donostia International Physics Center delako bat aurkeztu dutela-eta. Roher Nobel saria etorri zen, gonbidatu. “Etorkizuna elkarren artean harreman iraunkor baino informalean dauden zentroek osatutako sare lauso bat da”, esan zuen, edo horrelako zerbait. Unibertsitateaz eta ikerketaz ari zen. Eta gero: “Hemen hasieran gaude, baina, esaterako, Madrilgo konplutensean baino hobeki. Nor norekin konparatzen den”. Zera, ikerketa zientifikoaren mailan euskaldunek zerbait egin dute, egiten ari dira, taxuz, buruz, ikuspegi orokor batez, etorkizuna prestatzeko asmoz.



Ekologoak kezkatuta dabilta munduan gertatzen diren desertizazio-prozesuekin.

Gauza jakina da basoak mozten direnean desertizazioak egiten duela aurrera, lehen basoa egon den lurra ez dela hain erraz lehengorutzen, basoa bera baita lurraren babeslea; esaterako, euria ari duelarik, zuhaitzetako adar eta hostoei esker ura barreiatzen da eta hezetasuna atxikitzen da, eta lurra erraz asimilatzen du ezinbestekoa duen ura; aitzitik, basorik ez den tokian, euri erauntsi handia botaz gero, ura uharka doa, eta lurra higatu eta garraiatzen du; lur horrek ez du erori zaion uretik probetxurik ateratzen.

Konparaketa zilegi bazait, esango nuke fisikoak beren basoa prestatzen ari direla, ekosistema bat sortzen ari direla, non haiek bizitzeko eta beren jarduna aurrera eramateko beharrezkoak diren baldintzak izango baitira.

Guk ere, fisikoek bezala, Nobel sari bat ekarri genuen. Roher delako horrek jakingo zuen zertara zetorren, ez zen kasualitatez etorriko. Saramago kasualitatez etorri zen. Jose Saramagoren eskuzabaltasuna eta bihotz ona aprobetxatzen jakin zuen pertsona multzo txiki baten kemenari esker. Horra diferentzia. Euskal literaturak ez du basorik, basamortua da.

Euskal idazleek hil ala bizikoa dute kanpora ateratzea, itzuliak izatea. Ez dago horretarako inolako politikarik. Euskal edizioak beharko luke ikusten hasi zer komendi den argitaratzea eta zer ez, edo ez hainbeste. Baina nork bere esparrutxoari eusten dio eta ez da ezer planifikatzen. Eta abar. Poztu nintzen euskaldunak zerbait egiten ari direlako ikerketa alorrean, tristetu nintzen euskaldunak ez direlako ezer egiten ari kultur idatzia- ren esparruan. Euskal letrek ez dute Etxe-



nikerik izan, edo euskal letretako balizko Etxenikeek —ez hainbeste, bestalde, ale kontatuak baitziren hautagaiak— amore eman dute, edo ez diete kasurik egin, edo beste zereginetan dabilta. Ez dakit. Nik ez ditut EAEko pasiloak ezagutzen. Ni napar ostia bat naiz eta Iruñeko pasiloak baizik ez ditut eza gutzen, eta ez gehiegi, joteroak ez dituelako ni bezalakoak sobera maite, pasilo orotatik urrun nahi gaitu. Zer egingo diogu.

Saramagok gure artean bost ordu pasatu zituenetik zazpi hilabete joan dira, eta nire inpresio pertsonala da aukera eder bat galdu genuela; edo, hobe esan, ez genuela jakin une batez ireki zitzaigun aukera behar bezala aprobetxatzen. Alderdi pertsonaletik ari naiz, baina kolektibotik ere bai. Bestetik, kontuan hartuz gero nortzuk garen, zeintzuk diren gure antolamenduak, zer giro dagoen gure artean, eta zer kamuts eta begimotz garen gure planteamenduetan, aitortu behar da ez dela harritzekoa. Harritzekoa dena da Saramagok gurera etorri nahi izana.

Ekologiako adibidea erabiliz, esango nuke Saramagoren bisita hain beharrezkoa dugun euria izan zela, baina, euskal letren basorik ez dagoenez, hain beharrezkoa genuen ura ihes egin zitzaigula uharka.

Esan behar da, hala ere, EIZIE portatu zela, eta esker oneko natzaiola.

Itzulpenaz inor gutxik esan dit ezer. Ez nau harritzen, bestalde. Txarra, ona edo erdipurdikoa izango da, baina, edozein kasutan, euskal hizkuntzak urteak beharko ditu oraindik hori bezalako testu bat bikarbonatorik gabe liseritzeko. Torrealdairi entzun nion lehen-

goan Francoren zentsurak itzulpenak zigortzen zituela, testu itzuliak frogatzen duelako xede hizkuntzak jatorrizkoak adina balio duela. Ez da erabat egia. Hori guztia frogatzen da xede hizkuntzako irakurleek jatorrizkoek bezainbeste gozamen eta zukua ateratzen diotenean testuari. Gero eta komentziatua nago irakurleek egiten dutela, idazleek baino areago, literatura sendo bat. Euskarazkoak oso ahul segitzen du.

Guztiarekin ere, ez dut ukatuko niretzat esperientzia positiboa eta hagitx ederra izan zela. Estatubatuarrek esan ohi dute, oker ez banago, denok dugula eskubidea hamar minutuko loria-tartea bizitzeko gure mundualdian. Nik nire loriazko hamar minutuak bizi ditut, eta horrenbestez pozik nago; niretzat ere, denentzat bezala, urteak igarotzen dira, eta gero eta gutxiago komeni da ezer bihar-ko uztea, badaezpada ere. Tira, orrialdea pasa eta aurrera.

Eta nire oroimen intimoan beti gogoratuko naiz, nire baitan beti entzungo ditut Jose Saramago arnasaldi luzeak eta urduriak, hizketan hasi baino lehen nire ondo-ondotik botatakoak. Esaten duena sinesten duen eta sinesten duena esaten duen pertsona bat iruditzen zitzaidan. Egun, ia denak eszeptizismo-ra, konpromisorik ezera eta etsipenera bultzatzen zaituenean, zer esanik ez literatura-ren mundu nahikoa nazkagarrian, berean tinko egonagatik sinesgarritasuna galdu ez duen pertsona bat aurkitzea, niretzat, ikasgai ederra izan da.

Horregatik bakarrik merezi izan du.